

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2026 000000742

Espediente-zenbakia: 2025/IDA_ERA_0229

**ARATUSTEETAKO BERMEOKO TABERNEN MOZORRO TXAPELKETAREN
2026KO DEIALDIA ZABALTZEA ONARTZEA.****Xedea**

Aratusteetako Bermeoko tabernen mozorro txapelketaren 2026ko deialdia zabaltzea onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2025eko urtarrilaren 30eko Osoko Bilkurak, Aratusteetako Bermeoko tabernen mozorro txapelketaren oinarri orokorrak onartu ditu eta erabaki honen iragarkia 2025eko otsailaren 10eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu da.

Bigarrena: 2026ko urtarrilaren 26an, Kultura teknikariak, Aratusteetako Bermeoko tabernen mozorro txapelketaren oinarrietan beharrezkoa den edukia dagoela adierazteko justifikazio txostena egin du eta espedientean txertatu da.

Hirugarrena: 2026 urteko deialdia zabaldu egin behar da.

Laugarrena: 2026ko urtarrilaren 26an, fiskalizazio txostena eskatu da.

Argudioak

Lehenengoa: 2026 urteko gastuak, beharrezko atxikipena dauka (RC 2026/000024)

Bigarrena: Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 23. artikulua eta erlazionatutakoak.

Hirugarrena: Dirulaguntzen deialdiak onartzeko eta ebazteko ahalmena Alkatetzarena da toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen legeren 21.1.f) ren arabera, eta momentu honetan ez dago indarrean delegazio dekreturik.

Erabakia

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, honako hau erabaki dut:

LEHENENGOA: Aratusteetako Bermeoko tabernen mozorro txapelketaren 2026ko deialdia zabaltzea onartzea.

BIGARRENA: Deialdi honen publizitatea Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialera bideratzeko agindua ematea Kultura eta Hezkuntza Sailari.

HIRUGARRENA: Deialdi honen publizitatea Bermeoko Udalaren web gunean txertatzeko agindua ematea ATB Sailari.

LAUGARRENA: Hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean eta Osoko Bilkuran erabakiaren berri ematea.

Oharra: sinadurea eta data orri-oinan .



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07EA00153F6E00H6H3Y7Z0F4E7

Sinadurea eta data

NADIA NEMEH SHOMALY(P4802100J-AYUNTAMIENTO DE BERMEO - BERMEO UDALA)-BERMEOKO
ALKATEA - 05/02/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 05/02/2026 14:08:12

EXPEDIENTE ::
2025IDA_ERA_0229

Fecha: 30/12/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

